

Larunbatean irekiko da epea Montehermoson antolatutako Arte Grafikoaren Jardunaldietako lantegietan izena emateko

Arte Grafikoaren Jardunaldiek azaroaren 9tik 19ra arte iraungo dute, eta hitzaldiak, lantegiak eta egileen eta publikoaren arteko topaketak eskainiko dituzte

Montehermoso kulturuneko jardueren barruan, azaroaren 9tik 19ra arte Arte Grafikoaren III. Jardunaldiak egingo dira, eta izena emateko epea larunbat honetan, urriak 22, irekiko da.

Arte Grafikoaren Jardunaldien hirugarren edizioan autoedizioa izango da gai nagusia, zabaltzen ari den fenomeno baita, batez ere informazio eta komunikazio teknologiei esker.

Jardunaldien helburua da grabatuaren, ilustrazioaren edo argazkigintzaren alorretako autoedizioa ezagutaraztea, hitzaldi irekien eta lantegi praktikoen bidez. Orobat, gure inguruan urtero egin ohi diren bost autoedizio azoken arteko topaketa egingo da, horiek egileak eta publikoa elkartzeko balio baitute.

Azaroaren 9an (asteazkena) inauguratu eta aurkeztuko dira jardunaldiak, eta Jorge Oteiza fundazio museoko zuzendariorde Juan Pablo Huérfanosek hartuko du parte, **AutoEdit** eta **DIWO** (Do It With Others) erakustaldien komisarioa baita. Hilaren 10ean (osteguna) autoedizio azoken arteko topaketa izango da, eta besteak beste, La Fugaz, Inclasificables, EA! eta Guillotina egongo dira ordezkaturak. Azaroaren 12an eta 19an (larunbatak), azkenik, gaiari buruzko hitzaldiak eta lantegiak izango dira. Horretaz gain, azaroaren 21etik abenduaren 16ra bitartean “Grabatu eta inpresio autoedizioa” lantegiaren emaitzak erakutsiko dira, dokumentazio zentroan.

Arte eta Lanbide Eskolak eta “Ilustrapados en Araba” elkarteak lagundu dute jardunaldiak antolatzen.

Izen-ematea:

Lantegietan izena emateko epea larunbatean, urriak 22, hasiko da; Montehermoso kulturunean eman daiteke izena, 945.161.830 telefonora deituz edo info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org posta elektronikoan.

El sábado se abren las inscripciones para los talleres de las Jornadas de Arte Gráfico que se organizan en Montehermoso

Las Jornadas de Arte Gráfico se celebrarán del 9 al 19 de noviembre, e incluyen charlas, talleres y encuentro entre autores y público.

Dentro de las actividades del Centro Cultural Montehermoso, noviembre llega con las Terceras Jornadas de Arte Gráfico que se celebrarán del 9 al 19 de noviembre, cuya inscripción comienza este sábado 22 de octubre.

Las terceras jornadas de Arte Gráfico, en esta ocasión nos acercan al mundo de la autoedición, un fenómeno emergente gracias, principalmente a las tecnologías de la información y la comunicación.

El objetivo de las jornadas, es dar a conocer la práctica de la autoedición en el ámbito del grabado, la ilustración o la fotografía, a través de charlas abiertas y talleres prácticos. Así mismo, se realizará un encuentro con cinco de las ferias de autoedición que anualmente se realizan en nuestro entorno, y que sirven de punto de encuentro y acercamiento entre autores y público.

El miércoles 9 será la inauguración y presentación de las jornadas, con la participación de Juan Pablo Huérfanos, subdirector de la Fundación Museo Jorge Oteiza y comisario de las muestras de **AutoEdit** y de **DIWO** (Do It With Others), el jueves 10 será el coloquio con festivales de autoedición, en el que participarán representantes de La Fugaz, Inclasificables. EA! Y Guillotina, entre otros, y los sábados 12 y 19 de noviembre serán charlas y diferentes talleres sobre la temática. Del 21 de noviembre al 16 de diciembre además, se expondrán los trabajos resultado del taller “Autoedición en grabado e impresión” en el Centro de documentación.

Las jornadas, cuentan con la colaboración de la Escuela de Artes y Oficios y la Asociación Ilustrados en Áraba

Inscripciones:

Las inscripciones a los talleres, cuyo plazo comenzará el sábado 22 de octubre, podrán realizarse en el Centro Cultural Montehermoso, llamando al 945.161.830 o en info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org.